

HKEE-REN PRENTSA OHARRA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN KONTUAREN FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA - 2018

Joan den azaroaren 26an Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren Osoko bilkurak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Kontuaren fiskalizazio txostena onartu zuen, 2018ko ekitaldiari dagokiona.

Urteko kontuei dagokienez, HKEEk **aldeko iritzia** plazaratu du inongo salbuespenik azpimarratu gabe.

2017an egin zuen moduan, **finantza egoerak** 2018an ere bilakaera positiboa izan du. **Aurrezki gordinak gora egin du**, izan ere sarrera arruntek gora egin dute, foru aldundien ekarpenek batik bat, eta gastu arruntak murriztu egin dira, nagusiki lurralde historikoei egindako ekarpenak eta konpentsazioak. Ekitaldiko emaitza arrunta aski izan da inbertsio garbia finantzatzeko, zeinak behera egin baitu 2018an. Honen guztiaren ondorioz, **Diruzaintza Geldikin Erabilgarriak gora egin du**.

Txostenak adierazi du EAEn Administrazio Orokorrak **bete dituela** 2018an **aurrekontuaren egonkortasun, zor publiko eta gastuaren arauaren helburuak**.

Txostenak aurreko ekitaldietan bezala lurralde historikoaren arabera gastu eta sarrerei buruzko informazioa jasotzen du, urteko kontuetan ez baita informazio hori ematen. Lurraldearen arabera sailkagarri den 2018an guztira aitortutako gastutik (nagusiki finantza gastuak eta zor publikoa salbuetsita), % 27 Arabari dagokio; % 46 Bizkaiari; eta % 27 Gipuzkoari. Diru-sarreretan (zor publikoari dagozkionak salbuetsita), berriz, % 16 Arabari dagokio, % 51 Bizkaiari eta % 33 Gipuzkoari. Ehuneko hauek bat datoz Foru Aldundi bakoitzari ekitaldian jasotako zerga sarreretatik dagokion ekarpenen ehunekoarekin.

Txostenak ondorioztatu du EAEn Administrazio Orokorrak zuzentasunez bete duela ekitaldian ekonomia- eta finantza-jarduera arautzen duen lege arautegia, nahiz unean uneko salbuespenak azaleratu diren administrazio kontratazioan (espediente bat presako prozedura baliatuta izapidetzea behar bezala justifikatu gabe; beste espediente bat Kontratuen Legea betetzetik salbuetsitako modura lizitatzea; eta beste bat dagokion prozedura saihestuta aldatzea. Gainera, Jaurlaritzaren Kontseiluak 43,3 milioi euroren

gastuak baliokidetu ditu, Ekonomia Kontrolerako Bulegoak aurkako txostena jaulkia zuela, batik bat zerbitzuak dagokion kontratu espedientea bideratu gabe egiteagatik).